



ORFEON DONOSTIARRA  
DONOSTIAKO ORFEOIA

## Prentsa oharra

---

2026/07/10

### **Donostiako Orfeoia–EHUren XXV. Sariak musika-ikerketara eta Benito Lertxundi, Nerea Erbiti eta Arturo Reverterren ibilbidea aitortu ditu**

**Miramar Jauregiak EHUren Uda Ikastaroen barruan ospatutako sariaren hogeita bosgarren edizioa ekitaldia hartu du**

Donostiako Orfeoia eta Euskal Herriko Unibertsitateak (EHU) ostiral honetan ospatu dute Donostiako Miramar Jauregian Donostiako Orfeoia–EHU Sariaren XXV. edizioa. Duela mende laurdenetik, sari honek musikaren hezkuntzan, sorkuntzan eta sustapenean, musika koralean eta musikologian egiten den ikerketa bultzatu eta aitortzea du helburu. EHUren Uda Ikastaroen barruan egin den ekitaldia Antxon Elósegui Donostiako Orfeoia-aren presidentea eta Juana Goizueta EHUko Gipuzkoako Campuseko errektoreordeak zuzendu dute.

Aurtengo edizioan, musika-ikerketara sustatzeko kategorian, **Nerea Erbiti Larralde** ikertzailea saritu dute «*La afinación neutra en el canto monódico vasco. Un análisis de las grabaciones a presos vascos en Alemania durante la Primera Guerra Mundial (1916-1917)*» lanagatik. Euskal musika-ondarearen ezagutza ikuspegi historiko eta analitiko batetik sakontzen duen ikerketa da. Era berean, epaimahaiak **Arturo Reverter** musika kritikariaren eta **Benito Lertxundi** kantariaren ibilbidea aitortu du, musikaren garapenari, hedapenari eta ezagutzari egindako ekarpen jarraituagatik.

Sariaren hogeita bosgarren urteurrena dela eta, programak mahai-inguru berezi bat hartu du, sariaren bilakaerari eta urte hauetan izan duen eraginari buruz hausnartzeko. **Jon Bagüések** gidatutako solasaldian parte hartu dute **José Luis de la Cuesta** sariaren bultzatzaile eta epaimahaikideak, baita aurreko edizioetako saridunek ere: **Eli Arabaolaza**, **Gotzon Ibarretxe** eta **María Victoria Urruzola**. Guztiek nabarmendu dute ikerketak eta musikaren dibulgazioak kultura-ondarea zaindu, ulertu eta etorkizunera proiektatzeko duten garrantzia.

Ekitaldian azpimarratu da, sortu zenetik hogeita bost urte igaro diren arren, Donostiako Orfeoia–EHU Sariak erreferente izaten jarraitzen duela musikaren ezagutza, sorkuntza eta zabalkundea sustatzen duten pertsonen lana aitortzeko, unibertsitatearen eta musikaren munduaren arteko lotura sendotuz.

“Sari honen hogeita bosgarren edizioa ospatzeak erabat indarrean jarraitzen duen konpromiso bat berresten du: ezagutza, ikerketa eta musikaren zabalkundea babestea, gure ondarea



ORFEON DONOSTIARRA  
DONOSTIAKO ORFEOIA

zaindu eta belaunaldi berriei transmititzeko ezinbesteko tresnak direlako”, adierazi du Donostiako Orfeoiaren presidente Antxon Elósegui.

"Euskal Herriko Unibertsitatearentzat unibertsitatea gizartera hurbiltzen duen sari baten mende laurdeneko historia ospatzea EHUren apustu garbia da, unibertsitatean egiten den ezagutzaren eta ikerketaren transferentziaren alde. Gainera, aurten, urteurren hau modu berezian ospatu nahi genuen eta saria Benito Lertxundi, Arturo Reverter eta Nerea Erbitiri eman nahi genien. Zalantzarik gabe, balio erantsia ematen dio etorkizunerako bokazioa duen sari bati ", azpimarratu du Juana Goizuetak, EHUko Gipuzkoako Campuseko errektoreordeak.

Ekitaldiari amaiera emateko, Donostiako Orfeoiak bere ohiko errepertorioko hainbat obra interpretatu ditu —*Baldorba*, *Xalbadorren heriotzean*, *Gernikako arbola* eta *Gaudeamus igitur* — **Juanpa Lizarza** akordeoi-jotzailearen laguntzarekin. Horrela, amaiera berezia eman zaio sari honen hogeita bosgarren edizioari, bere esanahiagatik bereziki esanguratsua izan den ekitaldi bati.



ORFEON DONOSTIARRA  
DONOSTIAKO ORFEOIA

## Nota de prensa

---

10/07/2026

### El XXV Premio Orfeón Donostiarra–EHU reconoce la investigación musical y la trayectoria de Benito Lertxundi, Nerea Erbiti y Arturo Reverter

**El Palacio Miramar ha acogido el acto conmemorativo de la vigésimo quinta edición del galardón, celebrado en el marco de los Cursos de Verano de la EHU**

El Orfeón Donostiarra y la Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU) han celebrado este viernes en el Palacio Miramar de Donostia / San Sebastián la XXV edición del Premio Orfeón Donostiarra–EHU, un reconocimiento que, desde hace un cuarto de siglo, impulsa la investigación en la educación, la creación y la promoción musical, la música coral y la musicología. El acto, enmarcado en los Cursos de Verano de la EHU, ha estado presidido por el presidente del Orfeón Donostiarra, **Antxon Elósegui**, y la vicerrectora del Campus de Gipuzkoa de la EHU, **Juana Goizueta**.

En esta edición, el premio en la categoría de investigación musical ha recaído en la investigadora **Nerea Erbiti Larralde** por su trabajo *La afinación neutra en el canto monódico vasco. Un análisis de las grabaciones a presos vascos en Alemania durante la Primera Guerra Mundial (1916-1917)*, una investigación que profundiza en el conocimiento del patrimonio musical vasco desde una perspectiva histórica y analítica. Asimismo, el jurado ha distinguido la trayectoria del crítico musical **Arturo Reverter** y del cantautor **Benito Lertxundi**, en reconocimiento a su contribución sostenida al desarrollo, la difusión y el conocimiento de la música.

Con motivo del vigésimo quinto aniversario del galardón, el programa ha incorporado una mesa redonda dedicada a reflexionar sobre la evolución y el impacto del premio a lo largo de estos años. Moderada por **Jon Bagüés**, ha reunido a **José Luis de la Cuesta**, impulsor del premio y miembro del jurado, junto a anteriores personas galardonadas como **Eli Arabaolaza**, **Gotzon Ibarretxe** y **María Victoria Urruzola**, quienes han compartido sus experiencias y han puesto en valor el papel de la investigación y la divulgación musical en la conservación y proyección del patrimonio cultural.



ORFEON DONOSTIARRA  
DONOSTIAKO ORFEOIA

Durante el acto se ha subrayado que, veinticinco ediciones después de su creación, el Premio Orfeón Donostiarra–EHU continúa siendo un referente en el reconocimiento a quienes contribuyen, desde distintos ámbitos, al conocimiento, la creación y la difusión de la música, fortaleciendo el vínculo entre el mundo académico y el ámbito artístico.

"Celebrar la vigésimo quinta edición de este premio significa reafirmar un compromiso que sigue plenamente vigente: apoyar el conocimiento, la investigación y la difusión de la música como elementos esenciales para preservar nuestro patrimonio y proyectarlo hacia las nuevas generaciones", ha afirmado el Presidente del Orfeón Donostiarra Antxon Elósegui.

"Para la Euskal Herriko Unibertsitatea celebrar un cuarto de siglo de historia de un premio que acerca la universidad a la sociedad es una clara apuesta de la EHU por la transferencia del conocimiento y de la investigación que se realiza en el seno universitario. Además, este año, queríamos celebrar este aniversario de forma especial y la concesión del premio a Benito Lertxundi, Arturo Reverter y Nerea Erbiti qué duda cabe que le aporta un valor añadido a un galardón con vocación de futuro", ha subrayado Juana Goizueta, vicerrectora del Campus de Gipuzkoa de la EHU.

La ceremonia ha concluido con una intervención musical del Orfeón Donostiarra, que ha interpretado una selección de obras de su repertorio tradicional —*Baldorba, Xalbadorren heriotzean, Gernikako arbola* y *Gaudeamus igitur*— acompañado al acordeón por **Juanpa Lizarza**, poniendo el broche final a una edición especialmente simbólica por el vigésimo quinto aniversario de este reconocimiento.